

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### APODAKAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Lehiaketa publikoa, Apodaka-VI-10201 ehiza esparruko ehiza aprobetxamenduarena**

Lehiaketa publikoa, Apodaka-VI-10201 ehiza esparruko ehiza aprobetxamenduarena, zeina Apodakako jurisdikzioko lurrek osatzen duten eta titularra, jabe taldearen ordezkartzan, Apodakako Administrazio Batzarra baita, administrazio batzar horretan interesdunen eskura dauden baldintzen arabera.

Lizitazio oinarria urteko lau mila (4.000 euro) euro da, BEZa barne, eta gehiago eskainita hobetu ahal izango da.

Behin betiko bermea esleipen zenbatekoaren ehuneko bost (ehuneko 5) izango da.

Ehiza esparruaren aprobetxamendu zinegetikorako errentamendu aldia hamar (10) urtekoa izango da.

Eskaintzak aurkezteko epea zortzi (8) egun naturalekoa izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Apodaka-VI-10201 esparruaren ehiza aprobetxamendua esleitzeko, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak esparrua onartu behar du aurretik, dagokion foru agindua sinatuta.

Apodaka, 2019ko uztailaren 2a

*Lehendakaria*

*JOSÉ LUIS GONZÁLEZ DELGADO*